

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

Ebazpena, 2019ko urriaren 25ekoa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Vitoria-Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko eraikuntza-proiektua. 2. fasea. Lan zibila»k ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda

2019ko urriaren 25eko Ebazpenaren bidez, «Vitoria-Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko eraikuntza-proiektua. 2. fasea. Lan zibila» onetsi zen.

Proiektuaren helburua, eraikuntza-proiektu batean, Gasteizko tranbia Salburura luzatu ahal izateko beharrezkoak diren obrak definitzea da.

Proiektu horren abiapuntuko oinarria eta geroagoko garapena oraingo tranbia-zerbitzua Gasteizko ekialderantz zabaltzeko beharrezko barruan kokatuta dago, hiriaren erdigunetik abiatzen den eta Salburua auzoaren iparraldean amaitzen den trazatu baten proposamenaren bidez.

Proiektuak tranbia-plataforma 2.575 metroz luzatzea aurreikusten du, zabalera metrikoko bide bikoitzean. Luzapen hori Floridan aurreikusitako geltokian hasiko da, eta Salburua auzoko iparraldean kokatutako geltoki berrian amaituko da, Juan Carlos I. etorbidean.

Tranbiarako proposatzen den linea-luzatzeari esker, hobetu egingo da hiriaren ekialdean dauden auzoen –zehazki, Santa Luzia eta Salburua auzoen– zuzeneko lotura erdigunearekin, Lakuako autobus-geltokiarekin eta gaur egun garraio-lineek dituzten aldeekin.

Halaber, auzo horiek lotu ahal izango dira hiriaren hegoalderantz doan linea berriarekin, eta Unibertsitatearekiko lotura ere ezarri ahal izango da.

Lurzoruak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzen eranskinean lurzatieen zerrenda eta planoak azaltzen ditu.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituraren arloan jarduerak betearazteko beharrezko desjabetze-espeditenteak tramitatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 11eko 74/2017 Dekretuaren 22.1 c) artikulua xedatzen duenaren arabera. Dekretu horrek indarrean dirau Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten oinarrizko proiektuak edo trenbide-lineak, horien tartekak edo tren-azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeke proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin dakar onura publikoaren edo gizarte-intereseko deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko deklarazioa ere, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2,

18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik, honako hau

Ebazten dut

Jendaurrean jartzea «Vitoria-Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko eraikuntza-proiektua. 2. fasea. Lan zibila»k ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda, hamabost (15) egun balioduneko epean, ebazpen hau azkena argitaratu eta biharamunetik aurrera, alegazioak aurkeztu ahal izateko, egin litezkeen okerrak zuzentze aldera, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Aipatu den epean, ondasunen eta eskubideen zerrenda Gasteizko Udaletxeko iragarki-oholean ere jarriko da jendaurrean.

Honen berri eman da denak jakitun izan daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 25a

Garraio Azpiegituren zuzendaria
MIKEL GURUTZEAGA ZUBILLAGA

ERANSKINA / ANEXO

VITORIA-GASTEIZKO UDALERRIAN / TÉRMINO MUNICIPAL DE VITORIA-GASTEIZ

Finca zenbakia / Nº de finca	Katastroko erreferentzia / Ref. catastral	Jabea eta helbidea / Propietario y domicilio	Eragin mota / Tipo de afección (m²)			Izara / Naturaleza
			Erabateko desjabetzea / Pleno dominio	Zortasun iraunkorra / Servidumbre permanente	Aldi-baterako okupazioa / Ocupación temporal	
1	-	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	15.123	326	76.873	Hiri-lurzorua / Urbana
2	0057-811	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			41	Hiri-lurzorua / Urbana
5	0057-818	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			132	Hiri-lurzorua / Urbana
6	0057-618	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			394	Hiri-lurzorua / Urbana
7	0057-610	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			35	Hiri-lurzorua / Urbana
9	0053-544	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	594		4.045	Hiri-lurzorua / Urbana
10	0053-545	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	379		1.217	Hiri-lurzorua / Urbana
11	0053-868	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	87		107	Hiri-lurzorua / Urbana
12	0053-869	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	41		39	Hiri-lurzorua / Urbana
13	0053-546	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			81	Hiri-lurzorua / Urbana
14	0053-870	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			5	Hiri-lurzorua / Urbana
15	0053-396	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			35	Hiri-lurzorua / Urbana
16	0053-871	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			463	Hiri-lurzorua / Urbana
17	0053-555	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			1.067	Hiri-lurzorua / Urbana
18	0053-385	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			1.457	Hiri-lurzorua / Urbana
19	0053-217	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			8	Hiri-lurzorua / Urbana
20	0053-076	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			23	Hiri-lurzorua / Urbana
21	0053-078	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	960		1.173	Hiri-lurzorua / Urbana
22	0053-079	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			41	Hiri-lurzorua / Urbana
23	0053-085	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz			12.000	Hiri-lurzorua / Urbana
24	0053-071	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	21		117	Hiri-lurzorua / Urbana
25	0053-033	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	531		2.254	Hiri-lurzorua / Urbana
26	0053-034	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	740		1.364	Hiri-lurzorua / Urbana
27	0053-035	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	355		651	Hiri-lurzorua / Urbana
28	0053-0214	Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Espainia Plaza 1 / Plaza de España, 1. 01001 Vitoria-Gasteiz	106		764	Hiri-lurzorua / Urbana